

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



KATAMIXER MALTZURRA

Kenia'n katamixerra maltuzkeriaren ezaugarri da, gure artean lukia edo azalaria dan antzera. Antziñako kondaira batek diño katamixer batek auntz eder-lodi eta sendo bat eukala eta guztiak eutsoela bekaitza edo inbidia.

Katamixerraren loba bat gaiso aztunez gaisotu zan eta aita joan jakon ikustera. Aitak auntza eskatu eutson katamixerrari salda on bat egiteko gaisorik egoan semearentzat.

Aztiak esanda ekian auntzaren saldea artuta baiño ez zala osatuko. Baiña katamixerrak ez eban emon gura bere piztia eta erantzun eban:

—Eta ni egunen baten gaisotuten nazanean, nor ilgo dot salda osagarria neutzat egiteko?

Lobeak ez eban lortu salda osagarria eta il egin zan.

Baiña bera be gaisotu egin zan eta bere burua salbatzeko, auntza eraltea erabagi eban. Alegindu zan, baiña lortu ez!

Leoi bat igaro zan andik eta katamixerra ain larri ikusi ebanean, laguntza eskiñi eutson.

Katamixerrak onartu eban laguntza, baiña bere barruan ba-ekian auntza erail eta gero, leoiak bera be erailgo ebal.

Leoiak auntzaren narrua kendu ebanean, katamixerrak arren eskatu eutson uraren billa joateko eta sua egiteko, okelea erreteko.

Leoia kanpotik ebillen artean, katamixerrak zuloa egin eban lurrean eta an ipiñi ebazan auntzaren barruzkiak eta okela ona zugatzaren gaiñera eroan eban. Gero aldarrika esan eban:

—Leoia! Leoia! Zatoz arin. Auntzaren okelea ez da agiri lurraren gaiñean! Zatoz arin! Edo okelea dana galduko dozu!

Leoiak jan ebazan barruzkiak eta katamixerra zugatzaren abar-artean oztenduta egoan.

Baiña leoia ez zan iñozoa eta konturatu zan okelarik onena zugatzaren abarretan egoala eta agiñai karraska eraginda piztitxu arek iruzurtu ebalako, esan eban:

—Or goian geratu zaitte! Baiña lenago edo geroago beera etorriko zara ura edateko eta orduan izango dira kontuak!

Katamixerrak, egarritu zanean, beste bide bat aurkitu eban: Orriz estaldu zan eta zugatzetik jatsita, iturrirantz joan zan. Leoiak, lo dagoalako eginda, gaiñera jauzi egin eta anka batetik oratu eutson.

—Barre eragiten daustazu —esan eban katamixer maltzurrak— Ni jaten ba'nozu len baiño gose geiago eukiko dozu baiña aske izten ba'nozu, nik uda guztian ekarriko dautzudaz janariak.

—Ondo dago, baiña lenengo zeure berbea bete egizu edo geiago ez dozu igongo zugatzetara.

Katamixerra tximiñoiak ikustera joan zan eta esan eutsen

—Neure jaun aundiok! Toki ezkutu baten janari on bat aurkitu dot zuek elefanteak baiño sendoagoak, leoiak baiño indartsuagoak eta leonabarra baiño arriñagoak egiteko. Baiña banan-banan joan bear dozue edo janari orrek ez dautzue mesederik egingo.

Tximiñoiak pozik jarraitu eutsoen katamixerrari eta banan banan leoiaren agoan amaitu eben.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek